

IKERKETA BEKA **Emakumeen ekarpena Irurako historian**

Irurako Udaleko Berdintasun arloak Ikerketa Beka bat deitu du, Irurako emakumeek historian zehar bete duten paperaz datu berriak argitaratzeko edo eta datu jakinetan sakontzeko.

Mendeetan, emakumeak baztertuak izan dira historia ofizialean. Egin dituzten ekarpenak, bai eremu publikoan bai pribatuan, garrantzirik gabekotzat jo izan dira, eta beraz, isilarazi egin dira.

Horregatik guztiagatik, Irurako emakumeen historia, eta bizitza kultural, sozial, ekonomiko edota politikoa egin duten ekarpena berreskuratzea eta ezagutzera ematea nahi du Udalak.

HELBURUA:

Lanaren oinarria emakumeek Irurako historian izan duten paperari buruzko informazioa eskaintzen duen edozein ikerketa izango da.

Emakume batek modu indibidualean, emakume talde batek edo Irurako emakumeek kolektibo gisa historian eginiko ekarpena izango da ikerketa honen helburua.

Edonola ere, Irurako edota inguruaren historiari eginiko ekarpenak edo betetako paperak udalerrri hauen errealitate kultural, sozial, ekonomiko edo politikoa erakutsi behar du.

Beka norbanakoak edo taldeak eska dezakete. Ikuspegia historikoa, hezkuntzakoa, ekonomikoa, antropologikoa... izan daiteke; diziplina ugari bateratu ditzake halaber.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

Beka eskatu ahal izateko, parte hartzaileek lan proiektu bat aurkeztu behar dute, gehienez 15 foliotakoa, maiatzaren 7rarte, Irurako Udaleko Erregistro Nagusian. Honela izapidetu beharko da:

- “EMAKUMEEN EKARPENA IRURAKO HISTORIAN” IKERKETA BEKA.

Aurkezten den proiektuak honako atalak jaso beharko ditu:

- Izenburua
- Aukeratutako gaiaren justifikazioa
- Helburuak
- Metodologia
- Informazioa eskuratzeko iturriak
- Aurreikusitako emaitzak
- Egile edo egileen kurriluma

Proiektuak lelo batekin sinatuko dira eta gutunazal itxi bat erantsiko zaie, lelo berarekin. Gutunazalaren barruan, proiektua aurkeztu duen pertsonaren (edo pertsonen) izen abizenak, helbidea eta telefono zenbakia adierazi behar dira.

Proiektuak eta lana Euskaraz aurkeztuko dira. Makinatuta egon behar dira, arial 10 tipografia eta neurrian, espazio bikoitzean eta alde bakarrean idatzita.

EPAIMAHAIA

Proiektua aukeratzen duen epaimahaia ondoko hauek osatuko dute:

- Irurako Berdintasun Arloko zinegotzia
- Irurako Berdintasun Arloko teknikaria

BALORAZIO IRIZPIDEAK

Nahiz eta Epaimahaiak, beharrezkoa ikusten badu, irizpide gehiago erantsi, hauek izango dira balorazio irizpideak:

- Proiektuaren memoriari dagokionez:
 - Interesa
 - Bideragarritasuna
 - Ikerketaren xedea eta metodologia azaltzean argitasuna
 - Gaiaren ezagutza
- Egileei dagokionez:
 - Kurrikuluma
 - Genero-arloan prestakuntza izatea edo/eta esperientzia profesionala ziurtatzea.

IKERKETAREN IRAUPENA

Aukeratutako proiektua lehiaketaren ondoko hilabeteetan gauzatu behar da. Ikerketaren behin betiko dokumentua 2021ko abenduaren 15a baino lehenago aurkeztu behar da.

JARRAIPEN BATZORDEA

Irurako Berdintasun arloak, ikerketaren jarraipena egiteko batzordea izendatuko du. Horretarako, aditu baten laguntza jasoko da.

FINANTZAKETA

Poltsaren dotazio ekonomikoa 4.000 eurokoa izango da. Diru hori bi epeetan ordainduko da: proiektua aukeratzen denean, %50, eta gainerakoa, %50, behin betiko dokumentua ematean.

ARGITALPENA

Lana aurretik argitaratu gabe egon behar da. Irurako Udalak saritutako lana osorik edo zati bat argitara dezake, edo beka hutsik utz dezake, baldin eta aurkeztutako proiektua ez bada positiboki baloratzen.

JABEKUNTZA INTELEKTUALA

Jabetza Intelektualaren Testu Bategina onartzen duen apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuak ezarritakoa aplikatuko da.

HAUTATUAK IZAN EZ DIREN PROIEKTUAK JASOTZEKO

Beka jasotzen ez duten proiektuak egileak edo berak baimendutako pertsona batek eskura ditzakete beka ebatzi ondoko hilabetean.

OINARRIAK ONARTZEA

Beka honetara aurkeztuz, oinarri hauek oso-osorik onartzen dira. Oinarrietan aurreikusten ez diren egoeretan, epaimahaiak erabakiko du.